

aek

euskara praktikoa
Le basque pratique

30 urtez,
milaka pertsonak
euskara
ikasi dute gure
Gau Eskoletan

En 30 ans,
plusieurs milliers
de personnes
ont appris le basque
avec nous.

izena eman

inscris-toi



Esperientzia. Metodologia. Hurbiltasuna. Modulazioak. Eraginkortasuna
Expérience. Pédagogie active. Proximité. Formules diverses. Efficacité.



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

aek

Garano ikasteko
gure irakasleak
guztiak onartzen dituzte.

05 59 25 76 09
aek@wanadoo.fr

www.aek.eus



**Helduentzako euskara kurtsoen sartzea
2014/2015**

Prensa dozierra



Marengo karrika 22
64 100 BAIONA
05 59 25 76 09
aek@wanadoo.fr

Baiona, 2014ko irailaren 12a

AEK, euskara praktikoa

2014/15 ikasturteko sartzeko kanpaina

Aurten ere "AEK, euskara praktikoa" dugu sartzeko kanpainako leloa eta horren bitartez AEK-k azpimarratu nahi ditu bere ibilbide luzean zehar bildu dituen hainbat gaitasun :

- esperientzia profesionala,
- metodologia emankorrak,
- hedadura geografikoa eta beraz jendearekiko hurbiltasuna,
- modulazio eskaintza zabala,
- eta eraginkortasuna.

Helduen Euskalduntze Alfabetatzea garatu eta garatzen ari da eta dudarik gabe gehiago garatu beharko da ondoko urteetan, arlo estrategikoa delako :

- hiztun kopurua atxiki eta emendatzeko
- transmisioa segurtatzeko
- erabilpen soziala sustatzeko.

Urte hasieran Lurralde Kontratua landu zen eta besteak beste hizkuntzaren atala, ondoko 40 urterako prospektiba ahal bezain errealista eginez. Argi da ondoko 6 urteetan salto kualitatiboa eman behar dugula. Horretarako borontatea behar da bai eta dirua ere. Beha gaude zer trinkatuko den ondoko asteetan.

Formakuntza profesionalaren arloan aldaketa inportantak ere badatoz, pasa den martxoan bozkatu den lege berriarekin. Bere burua prestatu eta egokitu beharko du AEK-k, heldu diren aldaketei ahal bezain ongi erantzuteko gisan.

Bainan AEK baikor eta esperantzaz beterik da. Azken urteetan esperientziak bildu ditu, profesionalizatu da, proiektuak ere ez ditu eskas eta aukera berriak irekitzen ari zaizkio.

Geroari pentsatuz, jende orori laburzki bere lan, eskaintza eta metodologiaren berri emaitako filma bat egitea deliberatu zuen AEK-k. Aldudarrak Bideok egina du eta heldu den irailaren 19an Baionako Kalostrape ostatu berrituan aurkeztua izanen da.

Izenak emateko permanentziak eta kurtsoen hasiera

Izena emateko permanentziak **irailaren 15etik** hasiko dira Ipar Euskal Herriko Gau Eskola guzietan¹. Kurtsoen hasiera **urriaren 6an** astelehenarekin finkatua da.

16 Gau Eskolak lanean jarraituko dira klaseak antolatzen 20 herri desberdinetan, hasierako mailatik C1 mailaraino (ikus beherago europar erreferentzi marko komuna), EGA-ren prestaketa ahantzi gabe.

Interesatua den pertsona orok, Gau Eskola bakoitzeko informazioa eskuratzen ahalko du www.aek.eus webgunean eta zuzenean izena ere ematen ahalko du.



The screenshot shows the AEK website interface. At the top left is the AEK logo. Below it is a navigation bar with links: 'Hasiera', 'Ikastaroak', 'Zerbitzuak', 'Ohiko galderak', 'Harremanetarako', and 'Aurrematricula'. On the right, there's a 'zure euskaltegia' section with a search bar and a dropdown menu for 'Aukeratu zure herria...'. Below the navigation bar, there's a main content area. On the left, there's a news article titled 'Euskara ikasi dutenen bizipenak ezagutzeko mahai-ingurua' with a date of 2014 Ira. 10. The article text discusses the 'Garaz' project and the 'Nosotros hemos llegado a tiempo' book. In the center, there's a book cover for 'Nosotros hemos llegado a tiempo' by Sara Cozar. On the right, there's a video player showing Sara Cozar, with the text 'Bilatu webgunean' and a search bar. At the bottom, there are logos for 'ahize' and 'praktikatu', and a footer with the text 'EusLiderrak: euskararen erabilera sustatzeko saioak' and 'Aurten ere mintzapraktika egitasmoek oso balarazio ona jaso dute'.

Diru laguntzak

- › **Norbanakoaren formakuntza eskubidea (DIF):** AEK-k soldatapeko langile diren pertsona guzietan orotarazten die DIF orduak erabiltzen ahal dituztela euskarazko formakuntza finantzatzeko. Interesatuak diren guzietan dosierra prestatzen lagunduko ditu AEK-k.
- › **Ikastolako burasoak :** Seaska eta AEK-k duela 2 urte izenpetu hitzarmenaren ildotik, aurten ere Seaskak jarraituko du ikastoletako burasoen kurtsoen gastuak pagatzea laguntzen.


AEK-k eskaintzen dituen moduloak eta formakuntzak

- **Arratseko klaseak :** maila guztiak, astean 5 edo 6 ordu, 32 astez urritik ekainera (160/192 ordu) Iparraldeko Gau Eskoletan.
- **Egunezko klaseak :** maila guztiak, astean 6 ordu urritik ekainera Iparraldeko Gau Eskola gehienetan.
- **Enpresa barneko kurtsoak,** moldakuntza jarraikiaren bitartez.
- **Ikastaro intentsiboak :** aste bat martxoan (35 ordu) eta bi aste uztailean (70 ordu).

¹ Ikus urrunago Gau Eskolaka egun eta tenoreak

- **Barnetegiak** : Hizkuntza bat ikasteko ez dago hizkuntza hori hitz egiten deneko ingurunean murgiltzea bezalakorik. Hori dela-eta, egunean 24 orduz euskaraz bizitzeko parada ematen dute AEKren barnetegiek : euskaraz gosaldy, bazkaldu eta afaldu ; eguneko zenbait orduz euskara kurtsoak segitu ; eta ordu libreetan euskara hutsean bizi, barnetegia kokatzen den herriko jendearekin harremanetan nahiz barnetegian bertan antolatutako ekintzetan. AEK-k ikasturte osoan eskaintzen du euskara barnetegian ikasteko aukera, Foruko barnetegian (Bizkaia), hain zuzen ere. Euskal Herri osotik hurbiltzen dira ikasleak bertara hilabeteko edo denbora luzeagoko egonaldiak egitera, urritik ekainera bitartean. Iparraldean, neguko nahiz udako oporretan aste bat edo biko ikastaldiak proposatzen ditu AEK-k, ikasprozesuan ahal bezain fite aintzintatzeko.

- **ON-LINE IKASTAROAK:** www.egela.aek.org helbidean, nahi den leku eta ordutan ikasteko. On line ikastaroak iraupen jakineko ikastaroak dira, (20-190 ordu), denbora epe jakinean burutzekoak (hiru hilabete- ikasturtea), eta helburu zehatzekoak. Tutorearen aholkularitza eta jarraipen zuzena eskaintzen dute, baita ikastaldearen laguntza eta ikaskideekin harreman etengabea. Gainera, ikastaro guztiak Moodle software librea erabiliz egiten ditugu euskaldunek hizkuntza hobetzeko eta trebatzeko tresnak atxemanen dituzte, batzuk ordainduz eta beste batzuk dohainik, hala nola itzulpengintza, euskalkiak eta beste.



- **Xede taldeak** : lanbideari loturiko ikastaroak dira (Lurralde kolektibitate, haurtzaindegi, zahar etxeetako langileak..). Ondoko asteetan 150 pertsonak ikasten hasi edo jarraituko dute, 23 taldetan.
- **Buraso taldeak** : haurra ikastola edo klase elebidunetan ezarri duten burasoei euskara ikasi edo hobetzeko talde bereziak proposatuko dizkie AEK-k, haurrarekiko komunikazioa landuz bereziki.
- **EGA diploma** : interneten bidez eta kurtsoen bitartez, Euskararen Erakunde publikoak birdefinitu **EGA** diplomaren prestaketa kurtsoak.
- Bestalde, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, AEK-k berak argitaratzen duen **AIZU!** aldizkaria errezibituko dute hilabetero ikasle guztiek.

IZEN EMAITEKO PERMANENTZIAK 2014/15

GAU ESKOLAK/Nun	Permanentziaren lekua	NOIZ ?	TEL
AMIKUZE	Palais de Justice karrika 17 DONAPALEU	Irailaren 22tik 26ra : 14:00-20:00	05 59 65 89 21
	Hoztako Herriko etxean	Irailaren 23an, asteartearekin, 14:00-20:00	
ARBONA	Aranzola etxea	Irailaren 25ean osteguna eta 29an astelehena, 18:00-20:00	05 59 41 97 31
AZKAINA	Jauregia elkarteen etxea	Irailaren 22an astelenena eta 25ean, osteguna, 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
BAIGORRI	Plaza xoko gelan	buruilaren 27an, ebiakoitzez, 18:00 - 20:00	05 59 37 79 15
BAIONA	Marengo karrika 22	Irailaren 15etik 26ra 9:00-19:00 astelehenetik ostiralera	05 59 59 50 99
BARDOZE		Ikus Hazparne	05 47 02 48 74
BESKOITZE		AEK-rekin ikus	05 59 25 76 09
BOKALE	Baionako Gau Eskolan, Marengo karrika 22	Ikus Baiona	05 59 59 50 99
DONIBANE L./ ZIBURU	Eskoletako atekamotza (imp. des Ecoles)	Irailaren 16, 17 eta 18an, 10:00-18:00	05 59 26 46 02
		Irailaren 22, 23 eta 24an 14:00-19:00	
GARAZI	Gau Eskolan Trinketako plaza 3	Buruilaren 22tik 26ra, astelehenetik ostiralera, 14:00-20:00	05 59 37 79 15
HAZPARNE	Eihartzean	irailaren 8tik 19ra astean zehar 9:00-12:00	05 47 02 48 74
HENDAIA	Merkataritza karrika 11	Irailaren 15etik 19ra : 11:00-15:00 eta 17:00-19:00 (ostiralean, 11etatik 16:00ak arte)	05 59 20 55 30
HIRIBURU	Elizaldea etxea (Uhaina elkarteko lokala)	Irailaren 26an, ostiralarekin, bilkura 20:00tan	06 32 64 11 42
ITSASU	Gau Eskolan (Goxoki), Xilarrenea karrika	Ate irekitzea Gau Eskolan: irailaren 29an astelehenarekin 20:00tan	05 59 93 40 83
KANBO	Itsasu		
LEHUNTZE	Ezkontzetako gelan	Irailaren 26an, 19:00etan informazio bilkura	05 59 31 55 49
MIARRITZE	Jules Ferry karrika 9	Irailaren 22tik 26ra 9:00 -13:00 eta 15:00 -19:00	05 59 22 30 32
MUGERRE	Mugerre barneko elkarteen gelan	Irailaren 24an, asteazkena, 20:30tan	06 33 12 12 45
SARA	Gaztetxean	Urriaren 1ean asteazkena, 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
SENPERE	Elkartetxea (liburutegiaren ondoan)	Irailaren 23an asteartea 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
URRUNA	Posta gela	Sartze bilkura irailaren 25ean, ostegunarekin, 19'00tan	05 59 20 55 30
			05 59 26 46 02
UZTARITZE	Lagunen etxea	Irailaren 22tik urriaren 3ra 10:00-12:15 eta 16:00-19:00	05 59 70 30 74
XIBERUA	Gau Eskola, Barennes karrika - MAULE	Setemearen 15etik 27ra, astelehenetik larunbata arte, 16:00-20:00	05 59 19 18 44
PAUE		Harremanetan sar : laguntetamaita@wanadoo.fr	
TOLOSA		Harremanetan sar : euskara.tolosa@gmail.com	
BORDALE,		Harremanetan sar : gaueskola@eskualetxea.org	06 85 55 37 37
PARISE		Harremanetan sar : http://www.eskualetxea.com/sustraiak/	

Euskararen ikas prozesuaren eta ikasleak mailaka lortuko dituen gaitasunen deskriptiboa

		Oinarrizko erabiltzailea		Erabiltzaile independentea		Erabiltzaile gaitua
		EEMko A1 maila (Hasiera barne 100 oren) 200 oren	EEMeko A2 maila 200 oren	EEMeko B1 maila 200 oren	EEMeko B2maila 300 oren	EEMekoC1maila 300 oren (EGA)
U L E R M E N A	Entzumena	Hitz ezagunak eta oso oinarrizko erranaldiak ezagut ditzaket: niri, nire familiari eta inguruko berehalako gauzei buruz beste pertsonak poliki eta garbi hitz egiten dutenean.	Nirekin zerikusia duten hurbileko gaietan erabiltzen diren erranaldiak eta anitzetan erabiltzen den hiztegia, ezagut ditzaket (adib., niri eta familiari buruzko informazioa, erosketa, bertako geografia, lana). Mezu eta ohar motz, argi eta sinpleen ideia nagusia ulert dezaket.	Egoera ezagunetan aurkitzen diren hizketaldi arrunteko ideia nagusiak ulert ditzaket: lanean, eskolan, aisialdian, etab. Irrati edo telebistako interes pertsonal edo lanbideko gaien buruzko programen ideia nagusiak ulertzen ditut, emanaldia aski mantsoa eta garbia denean.	Hitzaldi luzeak ulertu eta eztabaida konplexuen ildoak ere jarrai dezaket, gaia nahiko ezaguna bada. Telebistako albistegiak eta gaurkotatuen gaien buruzko programak ulertzen ditut. Dialekto arruntean diren filma gehienak ere ulertzen ditut.	Hitzaldi luzeak ulert ditzaket, baita argiki egituratua ez denean erlazioak zehazki markaturik ez direnean ere. Telebistako programak eta filmak ahalegin handirik gabe ulertzen ditut.
	Irakurmena	Izen eta hitz ezagunak eta erranaldi oso soilak ulert ditzaket, adibidez ohar eta posterretan edo katalogoetan.	Testu oso labur eta soilak irakur ditzaket. Eguneroko material soiletan aurreikusi daitekeen informazio zehatza aurki dezaket, adibidez, iragarpen, prospektu, menu eta ordutegietan, eta eskutitz pertsonal labur eta sinpleak ere ulert ditzaket.	Eguneroko edo laneko hizkuntzarekin zerikusia duten testuak ulert ditzaket. Eskutitz pertsonaletan gertaera, sentimendu eta desioen deskribapena ulert dezaket.	Egileak ikuspuntu zehatza hartzen duen gaur egungo arazoei buruzko artikulua eta txostenak irakur ditzaket. Prosa literario berria ere ulert dezaket.	Testu literario eta gertaerei buruzko testu luze eta konplexuak ulert ditzaket, estilo bereizketak ezagutuz. Artikulu espezializatuak eta argibide teknikoak ulert ditzaket, nahiz eta nire arlokoak ez izan.
M I N T Z A M E N A	Ahozko elkar eragina	Molde sinplean parte har dezaket, betiere beste pertsona erranaldiak errepikatu edo polikiago hitz egiteko eta nik erran nahi dudana formulatzen laguntzeko prest bada. Galdera sinpleak egin eta erantzun ditzaket, berehalako beharren arloan edo gai ezagunei buruzkoak.	Eginbehar sinpleetan parte har dezaket gai ezagunei buruzko informazio soilak komunikatu behar direnean. Hitzeko truketa sozial biziki motzak molda ditzaket, nahiz eta normalean ezin dudana dena nire baitatik bakarrik ulertu.	Halako hizkuntza hitz egiten den tokira bidaiatzean, egoera gehienei buru egin dezaket. aitzinetik deus prestatu gabe sar naiteke elkarrizketan gai ezagunen edo interes pertsonal edo eguneroko gaien inguruan (adib., familia, zaletasunak, lana, bidaiatzea eta gaurkotatuen gertaerak).	Nahiko jariotasun eta naturaltasunez parte har dezaket elkarrizketetan eta horrek jatorrizko hiztunekin hitz egitea ahalbidetzen du. Testuinguru ezagunetako eztabaidetan parte har dezaket nire iritzia emanez.	Jorio onarekin eta naturalki hitz egin dezaket erramoldeen bilaketa gehiegirik gabe. Hizkuntza malgutasun eta eraginkortasunez erabil dezaket gizarteko eta lanerako helburuetarako. Ideia eta iritziak zuzentasunez formulatu ditzaket eta beste solaskideek erranari nire ekarpenak egin.
	Ahozko Ekoizpena	Esaldi eta lokuzio soilak erabil ditzaket non bizi naizen eta ezagutzen ditudan pertsonak deskribatzeko.	Lokuzio eta erranaldi batzuk erabil ditzaket, laburki nire familia, beste pertsonak, bizi baldintzak, izan dudana hezkuntza eta nire lana deskribatzeko.	Erranaldiak modu sinplean lot ditzaket esperientziak eta gertaerak, nire ametsak, desioak eta nahiak deskribatzeko. Iritzi eta planei buruzko arazoak eta esplikazioak eman ditzaket laburki. Ipuin bat kontatu edo liburu edo filma baten argudioa kontatu eta nire erreakzioak deskriba ditzaket.	Nire interesekin zerikusia duten gai anitzi buruzko deskribapen zehatzak eta argiak eman ditzaket. Gai bati buruzko nire ikuspegia azal dezaket, posibilitate desberdinen abantailak eta eragozpenak emanez.	Azpi-gaiak dituzten gai konplexuak zehazki deskriba ditzaket, ikuspuntu zehatzak garatuz eta ondorio egokiarekin borobilduz.
I D A Z M E N A	Idazketa	Postal labur eta soilak idatz ditzaket, adibidez oportetarik agurtzeko. Eskabideak bete ditzaket nire datuekin, adibidez, nire izena, nazionalitatea eta hotel bateko erregistroa betetzeko.	Berehalako beharrei buruzko ohar eta mezu labur eta soilak idatz ditzaket. Eskutitz pertsonala idatz dezaket, adibidez norbaiti egin duenaz eskertzeko.	Gai ezagunak edo interes pertsonalei buruzko testu sinpleak idatz ditzaket. Eskutitz pertsonalak idatz ditzaket esperientzia eta iritziak deskribatzeko.	Nire interesekin lotu hainbat gairi buruzko testu zehatz eta argiak idatz ditzaket. Idazlanak edo txostenak ere idatz ditzaket, informatuz edo ikuspuntu zehatza emanez. Eskutitzak idatz ditzaket gertaeren eta esperientzien garrantzi pertsonala azpimarratuz.	Testu argi eta ongi egituratuak idatz ditzaket ikuspuntuak azalduz. Eskutitz, idazlan edo txostenetan gai konplexuei buruz idatz dezaket azalpen zehatzak eginez eta garrantzitsuena iruditzen zaidana azpimarra dezaket. Mota guztietako testuak idatz ditzaket irakurlearentzat estilo segur, pertsonal eta egokian.

Adibidea, 192 orenen modulazioko klaseak hartuz gero ikasturtean zehar

1. ikasturtea	2. ikasturtea	3. ikasturtea	4. ikasturtea	5. ikasturtea	6. ikasturtea	7
---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---